

HITZ BITAN

GENERO INDARKERIA. Jardunaldiak, Bilbon

Emakumeen kontrako indarkeria ikasi egiten dela esan du Txaro Arteagak

Asier Iturriagaetxebarria | BILBO

Emakumeen kontrako indarkeria ume-umetatik ikasten dela adierazi zuen Txaro Arteaga Emakundeko zuzendariak atzo, eta jarrera horrek aurrera egin ez dezan, neurriak hartu behar direla azpimarratu zuen. Atzo hasi eta bihar arte iraungo duten Emakumea XXI. Mendean izeneko jardunaldietako irekiera ekitaldian egin zituen adierazpen horiek Arteagak.

Bilboko Foru Artxibategia entzulez gainezka egon zen, Emakundeko zuzendariaren hitzaldia jarraitzeko. Genero indarkeria oso zabala dela agertu ostean, horren barruan hainbat kategoria daudela azaldu zuen. «Pertsona batek emakume bat gutxiestea genero indarkeria

ere bada. Horrelako jarrerak sarritan ikusten ditugu kalean, eta hori onartezina da. Gainera, normalak ere iruditzen zaizkigu», esan zuen.

Halaber, genero indarkeria klase sozial guztietan gertatzen dela azpimarratu zuen, eta ez dela baliabide ekonomiko gutxi dituzten andreekin lotu behar. Era berean, 2002ko lehen sei hilabetean Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian 775 erasoren salaketak aurkeztu zirela esan zuen.

Arteaga: «Emakumeen bizi baldintzetan dago jatorria»

Genero indarkeria ulertzeko, emakumeak munduan nola bizi diren egoera kontuan izan behar dela nabarmendu zuen Emakundeko zuzendariak. Horrela, datu pare bat eman zituen,



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Arantxa Campos Rubio, Maria Asis Fernandez, Txaro Arteaga eta Pilar Dosal, atzo.

entzuleak egoeraz jabetzeko. «Munduan gaur egun gizonezko gehiago dago, Txina eta Indiako emakumeek alaba izan behar dutela jakitean, abortatu egiten dutelako. Gainera, munduan, lanaren %52 egin arren, emakumeek jabetzaren %10

baino ez dute». Horrek «egiturazko berdintasun falta» erakusten du, i zuen Arteagak.

Genero indarkeria amaitzeko, gizartearen arlo guztien parte-hartzea ezinbestekoa dela agertu zuen, batez ere gizonezkoek ere konpromisoa hartzea.

«Kanadan gizonezkoak hasi dira mugitzen, euren aldetik emakumearen kontrako indarkerian zer egin dezaketen aztertzeko. Hemen gizonezkoek gauza bera egin beharko lukete, dauzkaten beldurrei aurre eginez», eskatu zuen Arteagak.

ERASOA

Emakume bat atxilotu dute Gasteizen, bikotekide ohiari labanaz eraso egiteagatik

Ertzaintzak 55 urteko emakume bat atxilotu zuen herenegun, Gasteizen, bere bikotekide ohiari labanaz eraso egiteagatik. Arratsaldeko 15:30ak inguruan, Ertzaintzak emakumearen deia jaso zuen, eta bikotekideari labankada bat eman ziola adierazi zuen. Ertzaintza emakumeak emandako helbidera iristean, odoletan zegoen gizon bat aurkitu zuten, eta emakumea aldamenean. Gizona erietxera eraman eta emakumea atxilotu egin zuten. Gizonezkoa dagoeneko atera da erietxetik, eta emakumea epailearen aurretik pasatzeko zain dago.

HOMOSEXUALITATEA

Sexu berekoen ezkontza zibilei «oniritzia» emateko eskatu dio Madrazok PPri

Sexu bereko bikoteen arteko ezkontza zibilei «oniritzia» emateko eskatu zion, atzo, Javier Madrazo Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuak PPri, eta Espainiako legedian beharrezko aldaketak egiteko eskatu zion. Madrazoren arabera, eskubide hori izan beharko lukete, «ezkondu nahi duten bikoteek behintzat». «Errealitate sozial bat da, eta erakunde publikoek erantzuna eman behar diote, gay eta lesbiana guztien eskubideak bermatzeko», gaineratu zuen.

EUSKARA

Jaurlaritzak Euskalterm datu basea garatzeko diru laguntza gehiago emango du

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diru gehiago emango du Euskalterm euskal terminologiaren datu basea garatzeko. 2001eko irailean onartutako hitzarmena zabaldu du Sailburuordetzak, eta ia hitzartutakoa baino 72.121 euro gehiago jasoko ditu Euskalterm-ek.

HEZKUNTZA

Eduarne Uriarte katedradun izendatzea argitaratu dute Buletin Ofizialean

EAEko Buletin Ofizialak atzo argitaratu zuen Eduarne Uriarte katedradun izendatzea. Hala, atzotik ofiziala da dagoeneko Uriarterena dela Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Politikoen katedra. EHUK katedra Uriarteri eman, kendu eta epaitegiek berriro eman ostean argitaratu da Buletinean.

ETORKINAK

Urte bukaerarako 10.000 izan daitezke Nafarroan lan egiteko baimena izango duten immigranteak

Urte bukaeran 10.000 baino gehiago izan daitezke Nafarroan lan egiteko baimena izango duten immigranteak, Anafe Citek egindako ikerketaren arabera. 2001. urte amaieran jadanik 8.000 lagunek zuten lan baimena. Immigranteak Afrika eta Magrebetik nahiz Latinoamerika eta Europa ekialdetik iristen dira Nafarroara. Manolo Rodriguez Nafarroako CCOOko kideak azaldu duenez, «besteek egin nahi ez dituzten lanak egiten dituzte». Etorkin gehienek 32 urte inguru dituzte, eta ezkonduak daude.

ELKARLANA

Lankidetzak hitzarmena sinatu du Eusko Jaurlaritzak Nevadako Unibertsitatearekin

Euskal kultura zabaldu asmoz, eta Euskal Herria beste kulturekin harremanetan jartzeko helburuarekin, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzarrak hitzarmena sinatu du AEBetako Nevadako unibertsitateko Euskal Ikerketa zentroarekin. Unibertsitateak 96.162 euro jasoko ditu. Ildo horretan, Euskal Herriarekin zerikusia duten lanak digitalizatu eta katalogatu egingo dituzte. Horrekin batera, hainbat proiektu abiatuko dituzte, besteak beste, mintegiak, ikastaroak eta hitzaldiak antolatuko dira.

OSASUNA

Nafarroako osasun arduradunek onddoak jateagatik toxikazio gutxi izan direla nabarmendu dute

Nafarroako osasungintzako arduradunek atzo adierazi zuten, aurtengo udazkenean pertsona gutxi toxikatu dira mendian bildutako onddoak jateagatik. Haien ustez, gaiaren inguruan egiten diren informazio eta sentsibilizazio kanpainak eragin dute toxikazio larriak ez gertatzea. Nafarroako Ospitaleko Larrialdi zerbitzuak emandako datuen arabera kasu «bakan» batzuk baino ez dituzte artatu, eta horietako bakar bat ere ez da larrizko modukoa izan. Bideko Amaren Ospitalean ere, toxikazio oso gutxi antzeman dituztela iritzi diote. Hala ere, Nafarroako Ospitaleko Pepe Elizalde ohartarazi zuen onddo gehiegi jatea ez dela ona, eta digestio arazoak eragin ditzakeela.

ELIKADURA

Behikiaren inguruko informazio kanpaina abiatuko dute gaur Donostian

Behi haragiaren inguruko informazio kanpaina abiatuko dute gaur, Donostian, San Martin merkatuaren aurrean. Horretarako autobus bat ipiniko dute, eta bertan behikiaren elikagai ezaugarriak, kontsumitzaileentzako aholkuak, segurtasunari buruzko irizpideak eta gainerakoak eskainiko dituzte. Horretarako, ikusentzunezko materiala prestatu dute, informazioa ahal den modu zehatzenean zabaltzeko; autobusean bertan ere heziketa foroak egingo dituzte, 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan. Donostian aurkezpena egin ostean, Hego Euskal Herriko beste hiriburuak ere bisitatuko ditu autobusak.

Jaurlaritzak Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian jaio, hazi eta hildako behikiak sarituko ditu Sektore Batzordean

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Behiki Sektore Batzordeak 2002-2003 eperako Behikiaren Plangintza onartu zuen atzo. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek, eta EHNE eta Enba nekazaritza sindikatuek osatzen dute aipatutako batzordea. Eusko Jaurlaritzak, horrela, hiru lurraldeetan jaiotako, hazitako eta hildako behikiak sarituko ditu. Hori da, hain zuzen ere, atzoko batzordean berretsitako erabakia. Hala, hildako behikiaren kalitatea sustatuko dute, eta, era berean, urte osorako haragiaren eskaintza homogeneizatzea dute helburu. Behikiaren Sektoreak 60.000 behiez osatutako 7.000 ustiapen batzen ditu.